

udaltop

UDALETAKO
EUSKARA
ZERBITZUEN
TOPAKETAK



IZENBURUA:

ULERMENAREN MAPA. NOLA
ALDATZEN DIREN GAUZAK,
KAMARADA!

EGILEA:

Xabier Aierdi Urraza. EHU

DATA:

2017/05/11



1. Erezetik ezin da ezer atera	3
2. Eredu eza	4
3. Mapen inportantzia	5
4. Klase sozialak eta praktika linguistikoak	6
4.1 Euskara ezertarako behar ez duen sektore oso indartsu bat	6
4.2 Euskara ezagutzen ez duen bidaide potentziala	7
4.3 Egungo euskaldungoa.....	7
4.4 Bi periferia.....	8
5. Nora goaz?	10



1. Erezetik ezin da ezer atera

Ulermenaren mapa eskatu didate, baina oro har neure ikuspuntutik aukeren mapa planteiatu nahiko nuke, ikusteko gero horren barruan zer eta zer ez posible den. Aukeren mapa oso interes handikoa iruditzen zait, soziologiak oso argi baitauka gure jokalekua oso baldintzatua dagoela, hori da bere jakintzaren ekarpenik garrantzizkoena. Aukerak beti mugatuak dira eta mugagabeak direnaren ustearekin ere joka dezakegu, horrexetatik berrikuntzaren aukera etorriko delako, baina aukerak ezintzen dutena ezingo du nahitaez borondate soilak baliatu. Horri borondatekeria deitzen zaio. Marxek zioen moduan jendarteak historia egiten du, baina ez berak aukeraturiko baldintzetan. Gehienak aurretik datoz eta egin daitekeenaren muga beti presente dago.

Beraz, euskararen egoera soziologismotik aztertzen dut, ez soziolinguistika edo antzekoetatik. Soziologiak dio zenbait gizarte-produktu ezin dira edonon sozialki eraiki, borondatea jarrita ere. Horrela izan da eta izaten jarraituko du. Gurean hainbat prozesu azkartu egin gura izan da, baina azken urteetan diagnostiko bateratu batera helduak gaude: posible zen tokiraino heldu gara eta bide berriak asmatu beharra dago. Horra dator eskuartean dugun proposamena.

Euskararen etorkizunari dagokionean bi ardatz ezinbesteko daude: lehena, euskararen tokian-tokiko intentsitatea. Bigarrena, klase (sektore) sozialek dituzten praktika linguistikoak. Agian, beste hirugarren faktore bat legoke: berrikuntza propioa. Hau da, ia zer asmatzen dugun, zeren munduan zehar ez dugu non begiratu ezta zer kopiatu.

Euskararen dentsitateari dagokionean bi datu nahastu behar ditugu: eskualdeen euskararen ezagutza eta eskualdeka euskaldunen kopuru osoa nola banatzen den.

Soziologiaren aitzindari sortzaile batek, Durkheimek, hasieratik eskaini zigun dentsitatearen garrantzia, gugandik kanpo zetozen gizarte koertzioek sortzen zutena. Gizartea beti da koertzioa eta koertzioa ez dena ez da soziala. Nahigabe, eta baita kontra egonda ere, portaerak burutzerak behartuak gaudenean gizarte bat dago. Beraz, dentsitate sozialak ezindu eta ahalbidetzen du edozein praktika, eta esperimendazio bera ere. Dentsitatea lagungarri edo ezingarri izan liteke. Dentsitatea indar arrotz bat da, baina egiteko, pentsatzeko eta sentitzeko moduez osatua dago, eta tokian tokiko praktikak behartzen ditu. Euskara ezinbesteko izango denekoetan euskara lagundu egiten du; saihesgarria denekoetan, kaltetu.

Bestalde, klase sozialek garrantzi handikoak dira, eritzi preskriptoreak zein direnaren arabera dentsitatea sendotu edo ahuldu liteke eta baita euskararen erabilera bera. Euskarak azken bost hamarkadetan klase sozialean goranzko mugikortasun ikeragarria ezagutu du baina prozesu hau gizarte ikusgarritasunean erdipurdika plasmitzen da eta hor euskarak hainbat gizarte posizio irabazteko aukera galtzen du. Baserritarren eta antigualeko gorde beharreko sinbolo izatetik gizarte urbanoetako jende ikasiaren komunikazio hizkuntza izatera pasatu behar du. Sozialki prozesua emana dago, orain praktika linguistikoetan agertu behar da.

Horrela, eskuartean saihesgarria den praktika linguistikoa sasi-behartzeko proposamen bat dugu eta horrelakoak berriztatzen eta inposatzen asmatu behar dugu. Saiakera honekin, oro har, guztiz alde nago. Edonola ere, gizarte kalteak aztertu egin behar ditugu, sortzen den etekin baino min gehiago ez ekoizteko. Avishai Margalitek dio gizarte



bat dezentea dela instituzioek jendartea eta pertsonak umiliatzen ez dituenean, eta zibilizatua dela pertsonak elkar umiliatzen ez dituztenean. Hurrengo hamarkadetarako eginbeharrak honako osakinak nahasi behar ditu: egungo posizioak mantendu, koertzioa inposatu eta umiliaziarik ez eragin. Helburua? Aukerek zedarritzen dituzten mugen barne oreka ezegonkor hori lortzea.

2. Eredu eza...

Se non è vero, è ben trovato esaera aplikatu behar zaio Eduardo Galeanori. Galeanok Limako horma batean pintada hau ikusi zuela dio: "erantzunak genekizkienean, galderak aldatu dizkigute!". Hor nonbait omen gaude gaur egun. Horrela konturatu gara esplizitu edo implizituki, euskarak gizarte-, hiri-, lurralde- eta testuinguru- mugak dituela eta horren ondorioz badugu zer aztertua eta baita estrategiak berrikusi eta berritu beharra ere. Antzeko iritzia eragile eta aztertzaile askok du, hala adituek nola erakundeek.

Esan ohi da ez dagoela ezer praktikoagorik teoria on bat baino, baina azken hiru hamarkada eta erdietako hizkuntza-praktika(k) eta -politika(k) ikusita, agian geldiune bat eskatzen dutela nabaritu daiteke. Ez luzeegia, noski, ez dugu-eta behar den astirik. Ito ere, ez genuke egin beharko.

Ez dago munduan gurea bezalako hizkuntza errealitate bat, estaturik gabe, ingurukoekin zerikusirik ez duen hizkuntza txiki bat bi zibilizazio-hizkuntzen artean garatu beharko duena. Gainera, frantsesaren -dotoreziaren nazioarteko hizkuntza- eta gaztelaren -mundu hizkuntza- azpian desagertu ez izanarekin ere pozik egon beharko luke, eta bere transmisioa bermatu dutenek eta beronetara inkorporatu direnek harrotasunerako eskubidea irabazia dute. Hortik, txarto hitzegiten duen euskaldunberriari eskerrak emateko eta eskerrona erakusteko momentua ere bada.

Edonola ere, eginiko ibilbidearen ostean, aditu asko teoria eta praktika berri bat sortzearen aldeko posiziora heldu da. Teoria egokirik ezean fenomenoaren kausa beste nonbait bilatzen da, gehienetan borondatean: pertsonalean edo politikoan. Borondatea argudio eskasa izaten da. Egoerak argitzeko eta azaltzeko gizarte prozesuetara jo behar da; ez testuingururik gabeko borondatera. Gizarte-asmoak gizarte-testuinguruetan garatzen dira, eta hauetan zenbait helburu egingarri da eta beste hainbat ez. Historiaren ikuspegi kontrafaktikoari jarraituz sekula ez dugu jakingo beste modura batera egindako politikek zer emango zuten. Borondatea alde batera utzita, baldintzapen soziologikoak arakatzea egokiagoa da. Horrela, euskara ondoko konstanteetan garatu (eta -ko) da, nahitaez:

1. Hasierako eta egiturazko eskasia: ez dugu izan eta ez dugu gizarte ereduak inposatuko dituen burgesia nazionalik.
2. Historikoki, inon egin ez den saiakera batean aritu gara. Ezagutza zenbaki oso eskasetatik abiatuta, gizarte oso bat berreskuratu nahi izan diogu euskarari, eta hori seguruenik ezinezkoa da.
3. Kultura, euskara eta instituzionalizazio politikoaren inguruko borroka ideologiko basatia eta antzua 80. hamarkadan indar politiko abertzaleen artean.
4. Abiapuntu teoriko itxaropentsu eta inozoa: ezagutzak ezinbestez erabilera dakar.
5. Eta, esan den moduan, ez dugu munduan inportatu dezakegun eredurik, eta inguruan hizkuntza erraldoiak eta, beraz, ekonomikoagoak, ditugu.
6. Hirietan, euskaldun presentzia ez nahikoa baina euskaldun kopururik handiena.




7. Aurkari indartsuak ditu euskarak. Aldekoen artean batzuk ere, baina beste batzuk oso ahulak. kapital sozial eta kultural eskasekoak.

Hortik aurrera, zer egin? Pazientzia, belaunaldi pare bat, berrikuntza etengabea, sorkuntza eta sormen, nahikotasuna ziurtatu, euskara praktikagarria egin eta, orokorrean, presa/patxadaz eta ezinbestez desagertzen doazen belaunaldi euskaldunen ordezkokoak bilatu/bilakatu/sortu.

3. Mapen inportantzia

Mapa teoriko eta mapa fisikoak oso beharrezkoak dira. Lehenak ezinbestekoak dira. Antigualeko mapetan kontu eta eremu ezezagunak seinalatzeko Hic sunt leones! ipintzen zen. Guk euskararen sabanan sartu behar dugu, ze alde batetik arlo batzuetan maparik ez dugu, iparorratz eskasa, baina ezinbestekoa da ezagutzeko grina eta hortik praktika berriak asmatu baina alde teorikoari muzin egin gabe eta beronetan berroinarrituta. Euskararen makina-erraminta asmatu behar dugu. Esperimentazioa askotan aurretik joan liteke, baina teorikoki aztertu behar da eta metodologikoki neurtu, ateraldi hutsetan ez erortzeko. Apaiz zahar adiskide bat dut esaten duenak mundu honetan bera gehien ikaritzen duena Okurrentzien Kabinetea dela.


Mapa geografikoak ere gustuko ditut, aukeren mapa ederki argitzen dute eta. Oso ezagunak dira dagoeneko erabili izan ditudan mapa batzuk, gaur berriro dakartzat bertara. Oso antzekoak dira ezagutza eta ulermena erakusten digutenak.



Iturria: Egileak egina, 2011, Eustateko Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsuan oinarrituta.



Euskararen bermearen egungo lurraldea



Iturria: Egileak egina, 2011, Eustateko Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsuan oinarrituta.

4. Klase sozialak eta praktika linguistikoak

Praktika linguistikoak praktika politikoak dira eta berautan borroka sinbolikoak eta gizarte posizioak bilbatzen dira, ez modu mekanikoan, baina bai nahiko konkurrentean. Nolako praktika linguistikoak daude klase sozialen arabera? Zergatik ez da nabarmentzen maila sozial edo ekonomikoan euskaradunek duten posizio sozial gero eta dominanteagoa hainbat arlotan? Non daude jauziak eta mugak? Euskarari dagokionean, esanguratsuak dira ondoko gizarte posizioak:

4.1 Euskara ezertarako behar ez duen sektore oso indartsu bat

1. Besteak beste, enpiriko eta faktikoki behar ez duelako, oso erraz eta inolako arazo barik garatzen du egunerokotasuna eta euskararen beharra ez du nabaritu ere egiten.
2. Entzuna du euskara martxa onean berreskuratzen ari omen dela -kuriosoa iruditzen zaio-, eskoletan erabiltzen dela, poztu ere egiten da norbaitek dakienean, baina hor amaitzen da euren atxikimendu guztia.
3. Ez egotearren, batzuetan ez daude kontra ere, baina beren praktikarekin erresistenteak dira, oso neurri handian aurrekontzientea edo kontzientea delarik jarrera hau.
4. Euren seme alabak goi klaseko zentroetara deslokalizatzen dituzte, euskararen presentzia guztiz marjinala delarik.
5. Sektore honek kapital ugari du eta nolabaiteko goi klase bat osatzen du. Sare sozialak ditu, eta baita kapital ekonomiko eta kultural handia.



6. Beraz, euskarari dagokionean errealitate paralelo batean bizi dira eta bizi daitezke. Ez dute behar euskararik, ez dute seme-alabentzako eskatzen, eta euskaratik urrun eta euskararen kontra bizi litezke.
7. Badago sektore honen barruan, bozka abertzalea eginda ere, euskararen hautua egiten ez duena.
8. Normalean eta logikoki, seme-alabak euren baitako taldekoekin ezkontzen dira eta birproduzio ekonomiko-sozialari kulturalari baino garrantzia handiagoa ematen diote.

4.2. Euskara ezagutzen ez duen bidaide potentziala

1. Sektore hau profesional eta lizentziadun ez osatua dago, euren seme-alabentzako euskara ereduak aukeratu ditu eta aurrekoaren bezainbesteko kapital ekonomikoa ez badu ere, ez askoz txikiagoak behintzat kapital kulturalari dagokionean.
2. Sektore honek goranzko mugikortasuna bizi (izan) du. Klase ertain altu sendoa da eta badu kapital ekonomikoa eta kulturala, eta euskara kapital honetan gehitzen duten beste osakin bat da. Euskaldunekin batera, hirietan estrategikoak dira.
3. Momentuz, gurasoak dira, erdaldunak, profesionalak, seme-alabak euskara ereduetan matrikulatu dituzte eta curriculum ezkutua eta osatzen dituzten gizarte sareak igorriko dizkiete.
4. Denboraren poderioz eta estatus sendo bat mantentzen badute klase ertain altu gisa egonkortuko da eta, etorkizunean, "aristokrazia kultural" gisa jokatu dezakete, ez agian eurak, baina bai euren seme-alabak.
5. Sektore honen sendotasuna Gipuzkoako euskaldungoaren parekoa da: ekonomikoki oso ondo kokatua dago: profesionalak, ikasketa tasa altua dute eta kontsumo kultural eta material handia.
6. Bidaide indartsu bat bilatu ahal du euskarak sektore honetan, baina bidea luzea eta geldoa da, seme-alabengana transferitzen dena. Seme-alabak hiztun osoak bilakatu daitezten, gurasoenganako kanpaina neurtu eta ondo zuzenduak helarazten asmatu behar da.

4.3. Egungo euskaldungoa

1. Kapital kultural eta kapital ekonomikoaren arabera indartsua.
2. Klase altu, ertain eta behekoaz osatua dago. Altukoa zati esanguratsu bat, ertaina oso ugaria eta behekoa eskasa.
3. Gizarte egituran oso ondo kokatua dago, maila intelektual handikoa da, ekonomikoki sendoa, eta ezaugarri hauek gora egiten dute euskaran ehuneko altuenak dituen Gipuzkoan.



4. Oro har, egituraren aldetik euskaldunek ez dute arazo handirik eta printzipioz euskara harrotzeko nahikoa gizarte baliabide dute.
5. Sektore honetan estrategikoa da hezkuntza eta administrazioaren maila guztietan ari den azpisektore ugaria.
6. Hauen eta zenbait sortzaileren esku dago euskara eta bere gaitegia berritu eta gaurkotzea.
7. Jarrera eta baloreei dagokienean oso modernoa da sektore hau.

4.4 Bi periferia

1. Behe klase gehiena, hezkuntzaren bidez, euskarara ailegatu da. Azpisektore honek ez du gizarte boteririk eta ez dira erreferentzialak, baina kopuruaren ikuspegitik euskararentzako ezinbestekoak dira, hiztun hazkundera besteak beste hortik etorriko da eta. Euskara behar dute ezinbestez, berari esker goranzko mugikortasuna bermatu dezakete eta. Eta euskarak behar ditu ezinbestez.
2. Hauen azpitik eta oro har euskararen geografia sozialetik kanpo etorkinak daude, eta baita euren seme-alabak, baina honek ez du horrela -fatalitate ekidinezin modura- zertan izan behar. Immigrazioaren kopururik handiena hirietan dago eta normalean bi erronka daude biztanleria honekiko: Batez ere, A eredura joaten dira eta gehienetan inolako hezkuntza berrikuntzarik ez duten zentroetara, beraz hemen badago zeregina instituzioetatik eta gobernutik, eta immigrazioak euskararen arazo batzuk indartzen ditu, baina ez du berririk sortzen. Programa integrala eskatzen du immigrazioa eta euskararen arteko harremanak, mugimendu batean bi helburu betetzeko: gizarte-inklusioa eta hizkuntzarena ere. Harreraren prozesua bukatuta eta hizkuntz aniztasunean hierarkia logikoak ezarrita, bada edo heldu da interbentzio integral honi aurre egiteko unea.

Hurrengo taulan sektore bakoitzak euskararekin duen harremana zehazten dugu. Egia esan ez dugu ikerketa zehatzik honen inguruan eginik, beraz intuizio informatu batetik egiten da ezaugarritzea. Edozelan ere, beste gai batzuetarako balio badu (identitatea, ideologia, estatu forma, eta antzekoetarako), euskararako ere abiapuntu gisa balio digu. Sektoreka euskara eta bere eskaintza zatitu beharrean gaudelakoan nago, eskaintza bereziak eginik, eta horrek inbertsio ekonomiko handia, ikerkuntza sakonak eta publizitate kanpaina zuzenduak eskatzen ditu.

Egoera hau zientifikoki aztertzeaz dago, eta ez legoke txarto sektore hauetan -klase eta azpiklaseetan- euskararekiko zer-nolako diskurtsoak eratu eta mantentzen dituzten ezagutzea. Beherago, euskararekiko grafikoki klase sozialen posizio sozialak.



Taula. Euskararekiko hurbilpena sektore/klase eta kapital ezberdinen arabera

Sektoreak	Kapitalak			Euskarara hurbildu
	Ekonomikoa	Kulturala	Soziala	
Goi klasea	Handia	Handia	Oso handia	Oso gutxi /Ia ezer
Hiri klase ikasia	Dezentea	Handia	Handia	Erdizka
Euskaldungoa	Dezentea	Handia	Handia	Erabat
Behe klasea	Eskasa	Eskasa	Eskasa	Ia erabat
Immigrazioa	Oso eskasa	Oso eskasa	Eskasa	Gutxi


Iturria: Egilearena

Beraz, euskara, klase sozialak eta dentsitateak elkar topatzen duteneko bidegurutze konplexuan kokatuta dago ere. Gure gizarteak identitate arazo bat du, baina zorionez ez du lubaki ideologikorik: ongizate maila oso altua du, balore moderno oso hedatuak ditu eta oro har batzbestekoa kutsu sozialdemokrata da. Osakin hauek lagungarriak izan litezke eta euskararentzako bide berritzaileak aztertzen joateko testuinguru aproposa. Nolanahi ere, euskarak beste konstante batzuk kontuan hartu behar ditu eta hortik abiatu:

- Oso seguruenik, prozesu hau guztia Estaturik gabe, biztanleriaren gehiengoa abertzale izan gabe eta mundu-hizkuntzen inertiaren kontra garatu behar da. Ez dirudi erraza.
- Egiturak, errelatoak, teoria propioa eta babesa behar ditu euskarak.
- Euskararen garapena zaila eta zalantzatia izan da historikoki, eta horrela izaten jarraituko du. Herri a-normalek, historia a-normalak dituzte eta ekimen eta ekinbide a-normalei ekin behar diete. Hori da oso handien artean txikia izatearen patua.
- Gipuzkoa da eremu bakarra, edo garrantzizkoena dudarik gabe, espermentazio berritzailea garatzeko; beste herrialde batzuetara ere eraman daiteke asmo hau, baina bultzada ideologikoaren laguntzarekin. Espermentazio honetan, eta hala izan behar du ideologia asko dago, promotoreek uste dutena baino askoz gehiago. Solitaria, tranparik ez!



Grafikoa: Euskararen gizarte geografia (-sektoreak)



Iturria: Egileak egina

5. Nora goaz?

Euskarak anbibalentzia ugariko prozesuetan aritu beharko du eta gorabehera askorekin sortzen ari zaio berreskurapenaren prozesua gidatu eta lideratu dezakeen subjektu sozial indartsu bat. Beraz, pazientzia, lasaitasuna, diskurtso berriak, berrikuntza ugari, helburu egingarriak zehaztu eta egungo eskualde erabakigarriak mantendu eta lehenduz, hiriak ere sendotu behar dira.

Non dago berreskurapen honen sabaia? Zaila da esatea, baina, sekula lortu ez arren, berreskurapen berak izan behar du helburua: prozesua helburu bihurtu eta alderantziz. Working in progress honetan, urratsak etengabe errebisatu beharra dago baina badirudi bide egokia hartu dela, abiadura ere ez da txarra, eta txango honek merezi du, baina ausardia eta zuhurtzia nahastuz funanbulismoaren antza hartu beharko du.

Aldeko sektoreak bildu eta euskararen intentsitate handiko guneak gidatu behar dute txangoa, baina bi kautelarekin: ausardiak ez dezala zuhurtzia ahuldu edo zuhurtzian erorita ausardia baztertu. Edonola ere, ezin dira alde leudekeen sektore ahulak uxatu.

Oso gutxi falta zaio hiztun potentzial askori euskararen erabilera baliatzeko eta nolabaiteko neo-folklorismoa ere sustatu behar da. Edonola ere, ez alde batetik irabazi bestetik galtzen ditugunak.